

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostena Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakunde Autonomoen kontuek ez ezik (Administrazio Sektore Publikoa), Foru Enpresen Erakunde Publikoen eta Foru Elkarte Merkataritzakoen kontuek ere (Enpresa Sektore Publikoa) osatzen dute. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako batek baterako boto partikularra egin du.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Foru Sektore Publikoaren finantza egoera aztertzen du.

### Administrazio Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2011ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzarioa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan Aldundiari eta erakunde autonomo bati dagokienez jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Bestalde, diru-laguntzak emateari dagokionez, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko zailtasuna egiaztatu gabe guztira 2,6 milioi euroren 8 diru-laguntza eman ditu. Antzeko egoerara garamatza fundazio pribatu batekin guztira 0,8 milioi euroren zenbatekoan izenpetutako lau hitzarmenekin.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan Gizarte Laguntzarako Foru Erakundean salbuespena obra, zerbitzu eta hornigaiak zuzenean kontratatu izana da, guztira 0,9 milioi euroren zenbatekoan, dagozkion kontratazioko espedienteak izapidetu gabe.

BFAren Kontuari dagokionez, HKEEk uste du egoki erakutsi duela 2011ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa ez ezik, baita ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala ere, hainbat ez-betetze salbuetsita; izan ere, eragiketak erregistratzeko baliatu dituen irizpideak ez ditu erakunde fiskalizatzaileak onartzen eta horren ondorioz,

Metatutako Emaidza 23,9 milioi euro murriztu da eta urteanitzeko hainbat gastu ez ditu barne hartu.

Bi zalantza egoera ere azpimarratu ditu, lehenengoa, Europar Batzordeak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean jarritako salaketari dagokionez, 3/1996 eta 7/1996 Foru Arauetan ezarritako dedukzio eta hobari fiskalak berreskuratzeko beharrezko neurriak ez hartu izanari buruzkoa; eta bigarrena, EA Eren Administrazio Orokorrak Estatuko Administrazio Orokorrarekin dituen desadostasunetatik erator daitezkeen ondorio ekonomikoei dagokiena, 2007-2011 bosturtekorako Euskal Herriko Kupoa zehazteko baliatu beharreko metodologia dela eta.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu atal batean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Gomendio horiek aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalen kudeaketari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileriari dagozkie.

BF Aren finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak azpimarratu du aurrekontuan sarrera arrunten kontzeptuan kitatu diren eskubideak % 3 gehitu direla 2011ko ekitaldian eta gastu arrunta, berriz, % 7, nahiz erakunde konpromisoetatik eratorritako sarrera arruntei eta BF Ari ordaintzeko likidazioetarako udalei emandako ordainketa gerorapenei dagozkien zuzkidurak hartu behar diren aintzat. Azkenik, gauzatutako inbertsioak nabarmen murriztu direla eta zorpetzea aurreko ekitaldietan baino erritmo motelagoan handitu dela azpimarratu du.

### Enpresa Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, HKE Eren iritzira, 2011ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzarioa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat ez-betetze salbuetsita.

Bada, Epaitegiak azpimarratu du langileriari dagokionez eta lau sozietate publikoren kasuan, ezin egiaztatu izan dela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak

bete izana berariaz gaitutako enpresen bidez gauzatutako langile hautaketan (10 langile).

Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki erakusten dutela 2011ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala eta ekitaldi itxierako finantza egoera; salbuespen bakarra dago Azpiegiturak, SAren kontuetan, izan ere, izakinak eta ibilgetua eragiten dituen zalantza egoera dago, ekitaldi itxieran, hurrenez hurren, 144,7 eta 16,2 milioi euroren saldoa dutenak.

Finantza gaietan, HKEEk jakinarazi du Aldundiak 95,7 milioi euro eman dituela 2011ko ekitaldian Enpresa Sektore Publikoarentzat: 84,5 milioi euro kapitala handiagotuta, eta 10,9 milioi euro sozietate horien galerak berdintzeko. Berebat, sozietate hauei 20,4 milioi euroren diru-laguntzak eman dizkie inbertsioak egin ahal izateko. Ondoren, 2011ko ekitaldian zorpetzea % 8,7 gehitu dela aipatzen du eta hortik kopururik handiena Interbiak, SAri dagokiola, azpiegiturak egin ahal izateko. Epe laburreko finantzaketari dagokionez azpimarratu du, salbuespenen bat tarte, finantza egoerak epe laburrean aktiboak pasiboari aurre egiteko ezintasuna erakusten duela. Amaitzeko, ekitaldiaren emaitzari erreparatuta, adierazi du Enpresa Sektore Publikoaren 2011ko ekitaldiaren galerak 51,7 milioi eurorenak izan direla eta Sektore horren ustiaketa sarreretatik % 77,7 lotutako enpresei zerbitzuak emateari dagozkiola.